

«OLERTI» ALDIZKARIA

1.- Olerkiaren inportantzia

Igaz Olerti-Egunerako dei egitean, onela idatzi neutsen nik ainbat olerkariri: «Nun sortzen ete da, zure eritxiz, olerkia buruan ala biotzean? Au da, adimenean ala naimenean?» Gero, egun zeatzez, azillaren 18'an, sariak banatu ginduzanean, urteroko alkar-izketa bero-goza euki genduan, luze ta sakon gai berbera gabikotuz.

Olerkari dogu Aurre-Apr aiz, eta igande aretan bertan olerkiari buruzko lantxo au eskuratu eustan, bere eritxitan olerkia zer dan adieraziz. Gizasemeok buru ta biotz izanik, aalmen biokaz oretzen doguzala geure idaz-lanak eta olerkiak esan ondoren, au eskeintzen dausku.

«Gizonaren gogoak -diño- zelai zabal sakonak ditu; olerkariok dogun berarizko nabaipenak lo-zorroan lez irauten dau, Izadiaren ikutuak, egiñenen batek edo beste zeozek iratzarri dagian arte. Entzundako edo irakurritako berbatxuren bat izaten da, sarritan, lo-zorrotik olermena bizkortzen dauana; orduan, senetik urtenda lez, jarten da olerkaria, bere izate guztia, buru ta biotz, dardara bizian. Bere barru minberan olermenaren eragiñez sortu izan jakozan esakera ta itz dotoreenak azaldu gurea sortzen jako: orixe dogu benetako olerkiaren sorrerea». Eta honnek, ez esan etzetik, ba dau bere garrantzi ta inportantzia.

Aurrerago jorik, gure Orixe'k ederto idatzi euskuñ «Ona-

ren» eta «Ederraren» funtsa alzulduz. Bide ez-bardiñetik dabiltzala be, jomuga bardiñera doaz. Onak poztasuna sortu daroa, ederrak atsegiña barneratzen. Ona era berean, gozamenari dagokio, jateko bat, adibidez; ederrak, begi-zizta batek, atsegiña dakar; onak barne-zirrara dau eusgai, ederrak ostera sentikortasunaren guna. Baiña bada emen oindíño beste zerbait be, garrantzitsua: ederrak zentzun bere-berea dau, barruko zentzun batetik dario-na, kanpoko zentzunetatik bestelangoa ta onein ala dabillena. Ederra, egokitasuna ta ereskidetasuna burutapenaren indar aparteko batetik dingilizka dagoz, ots, zirrara batetik, gozamena-atsegiña-deritxogunetik.

Ederra nunai ta oparo daukagu; begira izadiari, ezkereskuma, aurre nai atze. Begiakaz eta belarriakaz jaso daroagu geienbat. Eta geure barru-barru daukagun eder-iturria? Gure arimearen aalmenak sortutzen daben ederra, eder artistikua dozu. Bietarako bear da trebetasuna bai kanpokoa jasoteko eta bai barruan gure indar bereziz sortzeko. Laga daigun saiets erti-ederra, gizonak bere antzez eta jitez ateratekoa, eta jar daiguzan begiak kanpotikoan; guri ederra eskinka dagoz bazter guztiak, Zoaz landara, zelaira, mendira, ibar laura naiz itxas-ertzera.

Ez ete dozu ezer zentitzen? Ba leiteke ezètz; errua ez da zeurea: umetan ez jakun eskolan, ikastolan, eder ori zentzunez -begiz, ez belarriz- jasoten erakutsi. Bai aldea pertsona batetik bestera; onek eder-gaia oparo daurki bidean doalarik, arek osteraz ezertxo bere ez. Ari atsegin jako bide egaleko zugatz bat, arri bat, errekatzo bat; edo-ta txindor baten txorrotxioa entzuteak zelako atsegiña dakartson! Orixe dozu ederra jasotea. Zoaz bestelan, museu batera; ango margo-laukietako ederrez ezpiritua jagi egingo jatzu, labazaria emon jakon orea legez.

Zirrara ez da besterik, kanpoko gauza batek guri ariman sua biztu ta bertan sort-azten daukun pentsamentua baiño. Gure ezpiritua geldirik dago, artzeko gertu, uts-utsik, jazoera ontan; ezin leikeo bere izateari galazo diñogun edo diardugun zer orren ideia ez eukitea. Pentsamentu diferenteak artzeko aalmenari zentzun ezbarðiñak deritxe. Olan, kolore aurrez-aurreko

biren artean baiño ez-egokitasun geiago dago kolore bat eta soinu baten artean.

2.- Bizitzea duindu

Ingurua, esan dogu -mundu osoa- ederraren ederrez sotil, apaian daukagu, naiz-ta gizasemeok konturatu ez sarri askotan. Ez dira gitxi, tamalez, gertakari onegaz konturatu barik bizi diranak. Doakabeak! Ez dakie, dirausku Unamuno'k, zer galtzen daben! Gizakumeak eta emakumeak euki leikeezan beste pozatsegiñak -jan-edanak, sexuirritsak, jolasak- baiño askoz biziagoak ditugunik, ezjakiñak bakarrik ukatuko dausku. Adierazo eziñak dozuz arte-aldetik datorkiguzan atsegin-lillurak. Ederzaleak soil-soil daukie txastaman ori, berarizko zentzun ori -gustua-, bear bestean erne-azi ta garatua.

Orixegaitik, ain zuzen, naasia da eder-lanaren sorpena; edozein artean izan be, poesi bat, musika-lan bat, margo-lauki bat beti dozu biurri ta korapillotsua. Ulerkatxa, izan be, ederra jaso, ausnartu ta ondoen azaltzen dakiana olerkaria da, dudarik gabe. Izadikoari dagokionez, berau artu ta itz bikaiñez jantziko dautzu; bardin bere barne indarrez sortu ta txoratzekoa baldin bada be. Margo-laukiai ezertxo be kendu barik, arte-lanik bikaiñenak literatura orokorrean aurkitzen diran olerki-lanak dozuz, Bibliatik asita.

Olerkariaren lana, beraz, igaro mendeetan eta gaur-egun, txalogarria dozu guztiz. Ona da Jainkoa, eta ederra; Aren irudia goretsi ta ugaritu, eginkizun bikaiña naitaez. Egiazko poeta danak orixe dagi, eta orixe egitera bultzatu oi ditu enparauak be. Orixen bere elburua, ortik igesi dabillena, ardatzetik urten dan gurpillaren pareko. Ba leiteke, au naiz origaitik, au edo ori, artista aundi izanik be, ondo artua ez izatea. Paul Claudel, esaterako, txistuka artua izan zan bein. Artista ona, alan be, beti izango da artista on, eta txarra beti txar, aren edo onen txaloak gorabera. Kontuz ibilli bearra dago bizitzako arrakastaz, ori «azpi-jokoari, politikari, etorri-bearrari, baita eskastasunari berari be» askotan zor jako-ta. Aldakor bai gara: gaur txalotzen doguna, biar lur-

pean sartu oi dogu.

Jente zeak baiño ederraren kontzientzi geiago dauan olerkariak, alegiñak alegin egin bear ditu erriaren kultur-mailla duindu ta literaturaz, dala dalakoz, zuzpertz ta kementzen. Jantzi apaiñak asko diño emakume naiz gizaseme baten soñean; gogolantze edo-ta kultura apaingarri lerdena da erri baten bizitzan.

3.- «Olerti» aldizkaria

Badau garrantzirik, jakiña, bide-kurutzean ezpaian dagoanari zein bide artu erakustea. Karrera bat ikastean, eliz karrera danean batez be, ele ederra, erretorika, literatura ta olakoak ikasterakoan, ikasle bakotxak barruan, sortzetik lez, dakarren deia igarri, aztertu ta gozaten alegintzea. Olantxe egin eben nigaz, zabal autortu bear dot, nire irakasle jatorrak: nire sortzetiko olerki-griñaz oarturik, ari orretarako liburuak ipiñi eustezan eskuetan. Beste bat oraindik aurrerago joana: ni euskalduna nintzala; euskera eder jatala ikusiaz, euskal liburuak -Azkuereñ «Txirristadak», Etxeita'ren «Josetxo» ta abar- emon eustazan irakurteko; baita euskerazko olerkitxoak, zortziko txikiak ain zuzen, taiutzen irakatsi be. Arrezkerokoa da nik neuregan sentitzen dodan olerki-bearra.

Ainbat oler-lan biribildu neban geroztik. Baiña nik karrera bitartean osoturiko koplarik geienak, gerra zala-ta, iru urteko kartzelan egotea zala-ta, ostuak, puskatuak eta galduak izan ziran. Garai artan argitaratuak, orraitino, guda aurrekoak nunbait ordiraue gaur be, Tolosa'ko *Pireneica*, *Karmen'go Argia*, *Yakintza*, *Euzkadi* ta *Eguna'n*. Expetxean be -1937-1940 bitartean- izkuntzak ikasten egonarren, idatzi nebazan banaka batzuk. Gero, Logroño'n zortzi bat urteko ixillaldia igaro ondoren, Hoz de Anero'n aurkitzen nintzala, 1948'tik 1951'ra, «Karmengo Amaren Egutegia» -onetatik erneko zan gero «Karmel», leenengo alea atera neban, eta ale onetan olerki pilloa dator neureakaz eta besteetakaz osotua. Egun areitan, baita, Donostia'ko «Educación y Descanso» eritxon batzordeak eraturiko konkurtsoan saritua izan zan nire 20 aapaldiko «Nere Zoriala».

1951'gneko udabarri azkenerantza Larrea'n nago komentuko nagusi. Aukera ona euskal arloan lan egiteko, eta orretan jarri nintzan bete-betean. Aspalditik nerabillen barruan olerki-sorta mardul bat osotzeko asmoa; eta au azertu ta bestean kopiak atera, liburutegi bat ikusi, mugaz beste aldera osterata, au zirikatuta urrengoa lanean jarri, ia konturatu barik, eundaka olerki-folioren jabe nintzan. Milla poesi bear nituan, sailka, mendez mende antolatuta. Olerkari bakotxari gaiñera zeaztasun batzuk bederen, bizitzatik, idaz-lanetatik, zerbait ezarri bear. Ekiñak frutua ekarten, eta urte bi t'erdian, 1953'ren azkenerako gertu neukan olerki-meta ikaragarria. Zarautz'era, «Itxaropena»-ri eroan neutson eta arek irarri eustan dotore baiño dotoreago. Laster baten saldu zan ediziñoa, ta 1976'an «La Gran Enciclopedia Vasca»-k bigarrenez argitaratu eustan.

Eibar'en iru urte emonik, 1957'an barriro ekarri ninduen Larrara, arrezkero, gaur be, ementxe iraunaz. «Karmel» ateratzen neban. Baiña, bertan poesi-mordozka azaltzen neban arren, geiago opa nik. Eta beste izkuntzetan be ba-dirala olako poesi-aldizkari bereziak -«Caracola», adibidez-, eta ni be antzeko zerbait osotzeko gogotan sartu nintzan. Itz lauzko aldizkari naiko geunkezan Euzkadi'n; ainbat zenbatu nitun: «Euskera», «Egan», «Herria», «Gure Erria», «Euzko Gogoa», «Zeruko Argia», «Karmel», «Gazte», «Alderdi», «Aranzazu», «Othoizlari», «Anaitasuna», «Goiz-argi», ta abar. Guztiok, bakotxak bere neurrian, ondo be-teaz joiazan euren ekiña.

Nire eritxiz, baiña, bazan oindiño utsune bat euskal aldizkarian arloan. Eta onek, ain zuzen be, utsune au artuko ebanak zuzpertz bear eban euskera, jaso ta edertu, zernaitarako trebetasunez jantzi, Lizardi zanak gura ebanez. Utsune ori orniduteko, ba, olerki-aldizkari bat bear zan. Euskal idazle talde aundi bat piztu nairik, lurpetik erne nai dauan azi antzera edo, aurkitzen zala esan daikegu. Talde orrek ez eukan nun argitara emon euren olermenaren sor-zituak. Nik au idatzi neban orduan, aldizkaria iragarri neban orri egalari baten: «Eusko idazle ta olerkari-rik asko daukaguz euren gogoeta ta irudikizun txanbeliñak nun

agerterazo ez daukiela, edo argitaratzekotan, txanda luze gogorra zaindu bear dabenak. Ots, gure olerkariak eta bertsolariak ez daukie nun asazkaldia emon, nai bestean, euren biotz-barrenai. Eragozpen au adieraziz idatzi daustienak askotxo dira».

Gaitz guztiai osakaia jarten saiatu oi gara. Ori ez dagigun artean ez gabiltz ondo. Nik argi nekusan ataka edegiegi oni itxitura jarri gurarik, askoren naia betez, «Olerti» aldizkaria sortu neban ementxe Larrako komentu onetan, «euskal olerkari, bertsolari ta eder-zale guztien aburu, uste, gogai, irudi eder ta biotz-zauskada jori eztikorrez asea», izango zana ziur asko. Olerki jatorrak, orijinalak, agertuko ziran berton, eta bertsolarien batbateko naiz astitsu idatzitako neurtitzak. Baita itzulpenak be, itz lauz naiz bertotan. Au da, olerki barrutian edu askotako lanak izango ziran onartuak.

Olerkia indar-azo bear da, niñoan azkenean. Lo samar daukagun erria esnatu ta iratzartzeko on-egokia dozu poesia. Beronen ezten zorrotza erriaren, euskal erriaren muin-barreneraiño eroan bearra daukagu. Izate-muin orretan dardarazirik kez karen ardatza, azpia osorik iraultzeko gai dana, barne-lurrari azpi-azpitik eragiten dautsona; bai, girotu ta ernemjñetan jarri uste-kabez, onik-onenean.

Emen daukazu, beraz, Olerti, euskerazko poesi-ingurrazti sotilla, kontzientzi girotzaille lerdena. Urtean lau numeru ziran, iru-illabeteka. Lenengo aleak 64 orrialde eukazan. Orrela, gutxi-gorabera, urrengo guztiak be.

4.- Idazleak

Eta idazleak, euskal olerkariak? Ba etc bear besterik? Ni ez naz iñoiz be orren arduraz ibilli; ez «Karmel»-erako ez «Olerti»-rako. Leen eta orain oparo etorri jataz gure euskal idazle zintzo langillen sorpenak, naiz-ta oraingo boladan -politika ta aurreiritxiak zoztor- bat eta bi atzerakoi agertu. Ba dira batzuk, idatzi ezez, «idazkortza ugartu, irudimena agortu ta biotza txikoldu jakenak». Norena dan-errua, nik dakidan arren, eurak be ez jakitea ba leiteke.

Dana dala, «Olerti» zaar eta gazteen artean gogotsu artua izan zan. Idazki asko artu nebazan, iragarkia artu-ala erantzunak. Ona batzuenak:

Juan Mari Lekuona'k Añorga'tik: «Adiskide gogozko: Zuk igorri eskutitza artu nebala egun batzuek ba-dira. Egi-egiaz esaten dizut ordu onean datorrela zure OLERTI izeneko aldizkari ori. Diozun utsunea neronek ere nabaritutakoa da, askotan egon bai naiz nere lantxoak nun argitaratu! Eta nere eskuetatik irten-dakoak gaur gutxi izanda ere, ezkutuan egon litezkenak alegia, beste euskal idazleen lanak irakurri-gose egon naiz, nun gose ori bardindu ez dakitela. Orretaz gañera, atzen aldi onetan, olerki saillean lan gutxi datoz eta txepelagoak».

Luis Mari Mujika'k Billaro'tik: «Lenengoz nik, olerkari bezela, milla esker bero-bero zure idea agurgarri orregatik. Begia zorrotza daukazu ta ekin-iturria ta ausartasuna oraindik areago. Benetan txalogarria zure azkeneko asmo au. Euskal olerkari ta bertsolariak etzeukaten, noski, ezer berezirik beuren jardun-aldietarako... Euskalerrian, nere ustez, olerkaritasuna ta bertsolaritasuna euskeraren eusgarri jatorrak dira. Ta gañera, au oso bide egokia da gure euskera oni barneko apaintasunak agerazteko, bera lantzeko ta egunen batean 'ere literatur-izkuntzen mailara iristeko».

G. Manterola'k Zeanuri'tik: «Ongi deritxot OLERTI argitaltzeko dozun asmo orri, makullukaz dabillen gure euskera ga-xoari laguntzeko egiten dan guztia, naiko ez da ixango-ta».

K. Jauregi'k Zarautz'tik: «Ba-dira urte batzuk olerkirik egin ez daudala ta euskeraz idatzi ere gabe urteak eramán ditut. Oneratu (Urrestilla'tik Zarautz'era) ezkeroztik, barriro idazten asi natzaizu. Olerkiak baiño ipui luze edo eleberritxoak idazteari eman diot, irakurleak irabazteko bide egokiagoa bai deritzat. Izan liteke noizpait olerkitxoren bat edo beste zuri bidaltzea».

Antonio Valverde'k Donosti'tik: «Olerkarientzako aldizkari bat laister sortuko dala jakiteak poztu egin nau oso. Bejondeizu-

la!, eta OLERTI luzaro bizi dadilla! Ortan txoko bat eskeiñi didazu. Milla esker. Ni enaiz olerkari, baiñan pozik lantzo bat edo beste bialiko dizut noizpeinka».

E. Erkiaga'k Bilbo'tik: «Belu ez dala lan ugari izan ditut. Tentsiño makalez dut odola, eta ia orain jasoten dudan. Udaberri ontan, tamalaren aundiz, ez dot bertuketan jardun. Itxaropenik, ostera, ez dagigun galdu. Zure asmo ederrari, txaloak txalo».

G. Aresti'k Bilbo'tik: «Gaur eguerdian topatu dot etxean berorren karteak, eta pozez beterik geratu naz. Orain arte ez dot berorren bearra begi onekaz ikusi; baiña asmo au kontsideratu ezkeru, biotz deadar azkar batek urtetan deust: Biba Aita Onaindia! Bai, ondo ikusten dot berorren asmoa eta nere laguntasunik aundiena eta iraunkorrena eskinduten deustat, amai on eta zoriontsu batera eroateko. Nire lanak, nire poesiariak sentiduenak, eta baita euskal eta extranjeriko poesiaren ganeko irizpideak, kritikak eta estudioak bialduko deustudaz. Entsegida parauko naz bearrean: nire poesietatik batzuk aukeratuko ditudaz; Baudelaire, Rilke, Whitman, T.S. Eliot eta Salinas estudiantuko ditut. Berorrek publiketan badeustaz, zeruraño bear egingo dot. Itzulpenak bere egingo ditut».

Jose Agerre'k Iruña'tik: «Dezun asmoa begiko zait, baita txalogarri ta sustagarri. Ardiesteko opa dizut nai dezuna. Jarrai, ba, aurrera, naiz-eta norbaitzuk irten bidera, aldiok olertirako gai ez direlako aitzakiaz. Olermenaren bulkoain ziria aditen degunok, esan ok gora-bera, ez gera ketxu. ezta axol-minik ez digu ekarri bear, baldin eta karrask egiten ba'dute besteen aleginek».

Olantxe, «Olerti» ondo artu ezezik, lanak bialtzen asi ziran, eta luzaro jarraitu eben, orduko olerkari ta bertsolari onenak.

5.- Lan jatorrak

Gai ugari etorren lenengotik, maiatz-azkenerantza elaiak gure lurraldera lez esan geinke. Kaleratu zan, beraz, «Olerti»; 1959, urtarrilla-epailla, lenengo alea, orrelaxe jarraituz «Garilla-

Lotatzilla 1969» arte. Amar urteko jardun arek gaur bost-sei tomu mardul osotzen dabez, egia esateko joranez billatuak eta irakurriak.

Leenengo zenbakian oraingoz ixillik daukagun Deunoro Sardui'ren «Baratz bikaiña» daukazu. Loraz jantzitako baratza iruditzen dau Olerti areatzatar idazleak. Lau laukoz mamindua da: ikus leenengo aapaldia:

«Lore itxusirik ez dau eusko-baratzak,
Danak ditu ederrak, guztiak aratzak,
Ai, ni ba'nintz erlea! Krabelin joririk
Nun billatu? ez bai da, iñun be, obarik».

E. Erkiaga dator gero koplari, eta jarraian Dirauket, Lon Arteaga (Peru'tik), Laspiur, Zubikarai, Gurbindo (Jose Agerre), Luken Larreategi, Joakin Aldabe, Aurre-Apraiz, Luis Mari Muxika, G. Manterola, G. Aresti, ta abar. Itzulpenak: G. Mistral, Shelley, Horati, R. Tagore, Bergili. Itz lauz: Igotz (Aita Onaindia), Juan San Martin, Zeleta... Oneitatik batzuk illak dira gaur, beste batzuk oraingo bolada ontan be olerki-arloan lan dagie.

Bigarreanean: Iratzeder, Bordari, Otsalar (Juan San Martin), Kerexeta, Ilintxolazabal, J.J. Lete, Ibalan, B. Enbeita, Uribe'tar Kuiril, Sitz-Zulueta, Toribio Etxebarria ta abar.

Irugarreanean: Felix Markiegi, Ayalde, Egieder, Motxela... Eta laugarreanean besteakaz batera: Eusebio Igartza, Arrugain, Zulueta, Abeletxe, M. Lekuona, I. Baztarrika...

Urrengo urtean oneik gaiñeratu jakuzan: Norbert Tauer, A. Fidel, Roman Irigoyen, Kepa Berakoetxea, Olagoiti, J. Lopategi, Jontxu Enbeita, Gaztelu (I. Goikoetxea), Errandonea, N. Etxaniz, Faustino Zerio, Gotzon Garitaonaindia, Z. Andonegi, Aldana, I. Olabeaga, Okil, Satarka (K. Sagartzazu), Xalokin (Bizente Batiz), Albitz, Bitaño (Nikolas Alzola Gerediaga), A. Ibiñagabeitia, J. Gaztañaga, X. Lazkoz, Lukas Dorronsoro, F. Loidi, J. A. Loidi, Eusebio Osa, Roman Maruri, Aldapeko (Etxaide), J. M. Satrustegi, Axmutil (L. Akesolo), S. Muniategi, Martin Ugarte, J. A. Orbegozo, Kepa-Txiki, Yurre'tar Julen Aba, J. Aranbu-

ru, L. Zugazaga, Irisarri, Txomin Peillen, Dunduzar, A. Zugasti, I. Olea, M. Argiñarena, J. Beistegi, Mikel Lasa, Jose Azurmendi, D. Baztarrika, Arrugain, Jose Lizarralde, Manex Erdozaintzi, A. Zubikarai, E. Mendizabal, B. Gandiaga, Eulogio Artetxe, Orixe ta abar. Onetxek dira geienbat, 1959'tik 1969'ra «Olerti»n idatzi ebenak.

Gaur euskal olerkigintzan zerbait diran ia danak, eta eurre-tikoak ementxe emon ebezan euren bulko ta sentipen bitxiak. Amar urteotako poesi ederrak, bildurik, literatur-txorta bikain-bikaiña osoa daukagu, aurreko garaia ezer kendu barik, bear bada.

6.- Itzulpenak

Ba dira iñoren lanetara jo bearrik ez dogula diñoenak. Esan au, baiña, susterrik bakoa, arropuzkeriz jalgia dala deritxat niri, besteen eritxiari lotsaz begiratuta bere. Nainungo izkuntzak egiña dozu: arrotz-izkuntzetako lanik oberenak norbere berbetara itzuli. Besteak, egiña guk zergaitik ez? Dana bear da gure literatura aberats egiteko. Gure euskera, gaiñera, gauza jatzu orretarako: esanak esan eta entzunak entzun arren, gure izkuntza edozein pentsamentu artu ta emon al izateko gai dalako.

Oparoa da «Olerti»-n itzulpen sailla. Or dozuz leenengo zenbakian: G. Mistral, Shelley, Horati, Bergili, R. Tagore. Bigarrenean: Boris L. Pasternak, Walt Witman, Schiller, M. Machado, Irugarrenean: F. Gartzia Lorka, Cué, J. M. Blanco White. Laugarrenean: Steecheti, Magali-Hello... Antzera ondorengoetan be: Copeé, Huidobro, A. Nervo, Verdaguer, D. Ridruejo, Karol Toman, A. Machado, M. Costa, I. Llobera, Jondone Gurutzeko, Alexandre, Menéndez y Pelayo, V. Millag, Keats, Ibarbourou, Jorge Manrique, M. A. Beer, Rilke, Gabriel y Galán, Peman, J. R. Jiménez, Andre Adg, Lamartine, Altolagirre, Alberti, Luis C. López, Leon Felipe, Migel Hernández, Eduardo Carrillo, Jose Rizal, J. Florez, A. C. Benson, Evtushenko, Pascoli, A. Goitisoló, Mao-Tse-Tung, M. A. Asturias, Jean Arp, Rubén Darío, Baluto, Esopo, Dante, Thomas Gray, Eugene Field, Pablo Neruda ta

besteak.

Zelako itzulpenak? itanduko dozu apika. On-onak ez ba dira be, txarrak diranik ezin geinke zabal-azo. Ez da errez guztien ao-goxoari atsegin emoten. Izan gogotan: bakotxak ikasiaren ikasiz ta teknikaren teknikaz, idazlanai buruz txastamen berezia dauala, janerako legez. Urteak dirala, 1969'rantza, Bogota'n orduan bizi zan Patxi Abrisketa'k «Kolonbiar olerki txorta bat» -Parnaso Colombiano- euskeraz ta erderaz, ango olerkaririk onenen lanakaz osotua, argitara nai izan eban. Itzulpen lana neure zainpean ipiñi eban arren, bosten artean burutu genduan, L. Akesolo, Jon Beistegi, Iñaki Goikoetxea, Sabin Muniategi ta neuk. Buenos Aires'ko «Ekin» euskal argitaldaria irarri eban 31 olerkariren lanez ornidutako 257 orrialdeko poesi-liburu au, Abrisketa'k eta enparauak txaloka artu ebena. Aita Ataun'i, alan be, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*'en idatzi ebanez, Iñaki Goikoetxea'rena bakar-bakarrik izan jakon atsegin. Bakotxak dau, bai, ao-sapai berezia lanak gozatzeko. Nolako begiz ikusi alako gustoa be izan oi dabe gauzak: emen itzulpenak.

«Olerti»-n datozanak ez dira, ez, urriak. Ona, zer etorri, jasotako au zeuk, irakurle, zeure aokeraz dasta daizun. T. Gray'ren «Basa-illerrri baten idatzitako illetea» dozu, 32 estrofakoa, Jon Beistegi'k euskeraz ipiñia. 1969'gneko azken zenbakian dator. Irakur leenengo aapaldia:

«Gau-ezkillak dakarre arratsan illotsa,
Astiro maldan zear datoz artaldeak,
Goldariak neketsu etxeruntz urratsa,
Illunari ta neri utziz lurraldeak».

Eta S. Muniategi'k beste au, Leon Felipe'ren «Makina» euskeraz:

Ezta ez, ez erensuge
ez jostallu bat ere, Marta;
eliztar opari bat da,
Jainkoaren azkenengo oparia.

Etxeko lan ta zeregiñetan,

geiegi nekatu ez zaitezen
ta geiago esan ez daikezun:
lenago bearrak, gero otoiak

Ta neskamea alperra ote dan
ta goru, labea dala-ta, elizan...
bein orrelako gogai, arduratan,
sakabanatu ez zaitezan».

7.- Ixil-aldiaren ondoren

Modu orretan ebillen «Olerti», txairo ta jaiki, ur aundi gainean ontzia irudi. Etsaia, alan be, momentu egoki zain egon oi jatzu; «Olerti»-ri be aspaldi ebilkion biran sai egalaria. Eta goiz batez, zast! kolpe etoia: «Ez dozu geiago «Olerti»-rik aterako! 1970'gn. urtea zan. Leendik ere, askotan eldu jatazan agintedunak, baimenik ete neukan itaunka. Nik jaramonik ez egiten, eta azkenez debeku latza bialdu eusteri Madrid'etik. Arrezkero, ixil-une zorrotza.

Aldiak dana konpontzen eta amar urte mutu eginda, barriro asi nintzan «Olerti» ateraten. Eusko Ikaskuntzak -eta Jesus Gaztañaga errimeak atan be- itzez eta egitez lagundurik, or ostera be «Olerti» kalean. 1980'tik erakunde onen pentzura dabil gure poesi-aldizkaria.

Aita Onaindia